



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko martxoaren 25a

39. ZK.

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da albo batera utz dezan “itzaleko bidesaria” izeneko finantzaketa-formula etorkizunean egiten diren azpiegituretan. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da prebentzio-neurriak mantentzen eta indartu dituzten erasoak amaiarazteko osasun-arretako zentroetan. Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da saltoki txikiak eta tokiko merkataritza babes-teko plan urgente bat gara dezan. Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da NA-2517 errepideko 1. kilometroa aldatzeko proiektu bat taxutu eta gauzatu dezan, lurrazpiko egungo pasabidearen ordezko bat egiteko. Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko formularik egokiena bila dezan, funts putreen eta paradisu fiskaletan jarduten duten enpresen presentzia mugatzeko zahar-etxeen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzen kudeaketan. Mozioa erretiratzea (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen zerrenda, Nafarroako lurralde-eremuan kokatutakoena. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da egin beharreko lege aldaketak egin dituzten Sekretu ofizialei buruzko apirilaren 5eko 9/1968 Legean nazioarteko parametroak –gardentasuna, proportzionaltasuna eta premia– bete daitezzen. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egiteko agin diezaion Errealitate Sozialaren Behatokiari, Nafarroan bizi diren adinekoren beharrianak eta eskariak ezagutzeko. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onetsi beharreko arau-xedapenak onetsi ditzan, ekidite aldera Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak mugatu dezan Nafarroako Foru Komunitateak zerga-arloan daukan eskumen osoa. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko haurren eskolatzeko familientzat duen kostua. Osoko Bilkurak ezetsi du (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, Arraza Bereizkeriaren Ezabaketari buruzko Nazioarteko Egunaren karietara. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Principe de Viana aldizkariari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (13. or.).
- Galdera, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien energia-efizientziako jarduketak, zeinak 149/2021 Errege-dekretuan jasotzen baitira, egiteko programatik heldu diren laguntza zuzenen deialdiari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, irakasleek maskarak erabili behar izateari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (15. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentzia. Barne-funtzionamendurako arauak (16. or.).
- Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru jurista hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (17. or.).

**H SAILA:****Bestelako testu arau-emaileak:**

- /2021 Foru Lege-dekretua, otsailaren 24koa. Honen bidez, egiten da Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauaren transposizioa (Zuzentarau horrek aldatzen du 2016/1164 (EB) Zuzentaraua, hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoak dagokienez), eta aldatzen dira, alde batetik, kirol-lehia ofizial eta profesionaletan parte hartzen ez duten kirol klubei onartutako geroratzeak, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren hogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren babespean onartutakoak, eta, bestetik, abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea, jokoari buruzkoa. Osoko Bilkurak baliozkotu du (18. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektua.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2021eko apirilaren 30eko 12:00ak arte** luzatzea. Foru Lege proiektua 2021eko urtarrilaren 15eko 3.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/LEY-00021).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da albo batera utz dezan “itzaleko bidesaria” izeneko finantzaketa-formula etorkizunean egiten diren azpiegituretan.**

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita albo batera utz dezan “itzaleko bidesaria” izeneko finantzaketa-formula etorkizunean egiten diren azpiegituretan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azpiegiturek eraiki, ustiatu eta kudeatzeko itzaleko bidesariak finantzatzeko formula gisa erabiltzea aukeratu zuten UPNko gobernuek A-12 bideko autobia, A-15 Pirinioetako autobien zati bat eta Nafarroako ubidearen lehen fasea bezalako azpiegituretan.

Erabaki horrek, gaur egun, ondorio ekonomiko garrantzitsuak ditu Nafarroako Aurrekontu Orokorretarako. Kanonak ordaintzeko betebeharrak:

urtean 100 milioi euro artekoak dira. Zenbateko hori, zalantzarik gabe, inbertsio-ahalmena murrizten ari da, mugikortasun jasangarriaren, digitalizazioaren eta oinarriko zerbitzuetan edo trantsizio energetikoaren arloan beharrezkoak diren azpiegitura berrien egikaritzean ez ezik, egungo Gobernuak egungo azpiegiturek mantentzeko eta konserbatzeko duen gaitasunean ere ere.

Baliabide publikoen kudeaketaren begirada labur hori da kudeaketa eta politika publikoak gidatu behar dituen iraunkortasun-printzipioaren etsaietako bat.

Itzaleko bidesarien sistema horrek dakartzan ondorio guztien norainokoa ezagutzeko, Nafarroako Parlamentuak jada Kontuen Ganberari eskatu dio formula horren arabera egindako kontratuak fiskalizatzeko.

Premiazkoa da erakunde publikoak gai izan gaitetzen interes publikoak kaltetzen dituzten eredu politikoak –kasu honetan, azpiegiturek finantzatzeko ereduak– baztertzeko. Eredu hori kontabilitate-ingeniaritzako sistema bat zen, azpiegituren finantzaketaren eremuan ospea erabat galduta zuena, eta funts publikoak interes pribatuetara transferitzea dakar, iraunkortasunaren aurkako eredu maltzurrena izateaz gain.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du albo batera utz dezan “itzaleko bidesaria” izeneko finantzaketa-formula etorkizunean egiten diren azpiegituretan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da prebentzio-neurriak mantentzen eta indartu ditzen, erasoak amaiarazteko osasun-arretako zentroetan.**

*PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita prebentzio-neurriak mantentzen eta indartu ditzen, erasoak amaiarazteko osasun-arretako zentroetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

2020an, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen aurkako 458 kanpo-eraso detektatu ziren Nafarroan. Erasoen gehienak hitzezkoak izan baziren ere –351 guztira–, 105 eraso fisiko erregistratu ziren, Nafarroako Osasun Zerbitzuko Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak emandako datuen arabera.

Badakigu aurrerabide handia egin dela Nafarroako Osasun Zerbitzuan gertatzen diren erasoak amaiarazteko, baina egoerak hor dirau, eta soilik egiten ahal zaio aurre prebentzio-neurriak –bai materialak, bai antolakuntzakoak– indartzen badira, osasun arloko profesionalen babesa emateko.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prebentzio-neurriak mantentzen eta indartu ditzen, erasoak amaiarazteko zentro guztietan, bai Oinarrizko Osasun Laguntzan, bai espezializatuan, larrialdi zerbitzuak lehenetsiz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erasoetarako alarma-sistemak ezartzeko plana osatzea –bereziki, Oinarrizko Osasun Laguntzan–; esaterako, sargailu finkoak edo eskumuturrekoak, bideozaintzako kamerak, altzariak aldatzea edo arrisku-eremuetako zenbait guneren egitura aldatzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2020an programatutako ikastaroak –autodefentsako teknikei eta erasoak prebenitzeko gaitasunak lortzeari buruzkoak– egin ditzen, azkenean ezin baitziren egin.

4. Herritarrak kontzientziatzeko kanpaina bat prestatu eta zabal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da saltoki txikiak eta tokiko merkataritza babesteko plan urgente bat gara dezan.**

*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita saltoki txikiak eta tokiko merkataritza babesteko plan urgente bat gara dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Tokiko eta gertuko merkataritzaren sektorea izaten ari da COVID-19aren pandemiak eragindako krisiak gehien kaltetuenetariko bat.

Nafarroako Merkataritza Elkartek egindako diagnostikoaren arabera, Nafarroako merkatarien % 72,10ek gutxitu dituzte beren salmentak aurreko urtearekin alderatuta, eta jaitsiera hori % 89,36rainokoa izan da azpisektoreren batean; adibidez, ekipamendu pertsonalaren sektorean: arropa, zapatak, osagaiak, bitxiak, imitaziozko bitxiak, optikak.

Epe ertain eta luzerako itxaropenak etsigarriak dira: inkesten arabera, saltokien % 15 baino gehiago -1.000 inguru- itxiko dira 9 hilabeteko epean, eta % 23 inguru, berriz -ia 1.400- 5 urteko epean.

Saltokiak ixte hori dela-eta enpleguan aurreikusten den inpaktua kezagarria da. Datozen 9 hilabeteotan 2.500 lanpostu baino gehiago gal daitezke, eta 4.000, berriz, datozen 5 urteotan.

Saltoki txikien sektorea duela urte batzuk egiturazko krisi betean zegoen jada, eta osasun-krisi honek areagotu besterik ez du egin egoera hori.

Gertuko eta tokiko merkataritzaren aldeko apustua egin behar dugu, eta balioan jarri behar dugu horrek daukan eginkizunaren garrantzia (egituratzailea, kohesio-emailea eta ingurumenaren aldetik jasangarria), kontsumo-ohitura gero eta ohikoagoen atzean dauden beste negozio-mota batzuen aldean (online plataforma handiak, merkataritzagune handiak...).

Tokiko merkataritza enplegu-nitxo garrantzitsu bat da gure erkidegoan, 20.000 pertsona baino gehiagori ematen baitio enplegua (besteren konturako langileak eta autonomoak). Horietako portzentajerik handiena emakumeek osatzen dute, zerbitzuen sektorea oso feminizatuta dagoelako.

– Araubide orokorreko afiliazio osoaren % 70 baino gehiago dira emakumeak.

– Autonomoen araubideko afiliazio osoaren % 56 baino gehiago dira emakumeak.

Emakumeen sektorea zigor gogorragoa ari da pairatzen, Nafarroako langabeziari buruzko azken datuen arabera.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du saltoki txikiak eta tokiko merkataritza babesteko plan urgente bat gara dezan berehala.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontsumo-bonuen kanpaina bat egin dezan, behar adinako zuzkidura ekonomikoarekin, gure erkidego osoko saltoki txikietan trukatu ahal izateko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gertuko merkataritza digitalizatzeko egiazko plan bat egin dezan, online salmenta nahiz etxek etxekoa ahalbidetzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du komunikazio-kanpaina orokorrak eta pedagogia-ekintzak egin ditzan hezkuntzaren alorrean, gertuko merkataritzaren balioak nabarmentzeko eta kontsumo-ohiturak eta -ereduak errotik aldatzen laguntzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan merkataritzagune handi edo ertainik susta, eta neurri berriak aktiba ditzan Nafarroako herri eta hirietan hutsik dauden lokalak betetzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter dezan ea mugatzerik dagoen altuerako merkataritzaren ezarpena eta merkataritza bertikalaren garapena.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du al bait lasterren gara ditzan saltoki txikiek merkataritzagune handien aldean aukera berdintasuna izatea bermatuko duten tresna zehatzak.

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da NA-2517 errepedeko 1. kilometroa aldatzeko proiektu bat taxutu eta gauzatu dezan, lurrazpiko egungo pasabidearen ordezkoko bat egiteko.**

### **LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita NA-2517 errepedeko 1. kilometroa aldatzeko proiektu bat taxutu eta gauzatu dezan, lurrazpiko egungo pasabidearen ordezkoko bat egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Arreko (Ezkaabarte) sarreran, Atarrabiatik datorren NA-2517 errepedearen 1. kilometroan, Uhartetik datorren PA-30rekiko bidegurutzean, bada errepede azpiko pasabide bat, zeina baita Atarrabiara oinez joateko bide nagusia.

Pasabide hori asko erabiltzen dute Arreko eta Ezkaabarteko biztanleek; izan ere, toki horiek oso lotuta baitaude Atarrabiarekin, bai sozialki bai udalerrri horretako oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko (pediatriako zerbitzu medikoa, eskolak, institutuak, finantza entitateak, eta abar. Pasabide horrek gabezia handiak izan ditu beti: ur filtrazio etengabeak, argitasun eskasa, zoladura irristakorra, pasabide estua...

Egia bada ere Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuak alderdi horietako batzuk hobetu dituela, erabat beharrezkoa da behin betiko konponbide bat ematea, uanean uneko neurri zuzentzaileak ezartzeaz gain.

Asko dira pasabide horretatik segurtasun falta handiarekin ibiltzen direnak. Gazteak, batez ere emakumeak, ilundu denean tarte horretan ibiltzera ausartzen ez direnak, bai eta Atarrabiatik Arrera oinez etortzen diren adinekoak ere, horiek ere seguru sentitzen ez direnak, baldintza meteorologikoak kontrakoak direnean bereziki.

Pertsona batzuek errepedeko bazterbidetik igarotzea aukeratzen dute, lurpeko pasabidea ez erabiltzeko, ibilgailu batek harrapatuak izateko arrisku handiarekin, eta horrek oinezkoei eta gidariei eragiten dien ezbehar-arrisku handiarekin.

Urte gehiegi dira arazo hau konpondu gabe dagoela, eta jada puntu beltz bihurtu da Arreko herriarentzat. Irtenbide hori lortuz gero, kohesio handiagoa lortuko litzateke eremu horretan, eta lehen aipatutako arriskuak saihestuko lirateke.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NA-2517 errepedeko 1. kilometroa aldatzeko proiektu bat taxutu eta gauzatu dezan, lurrazpiko egungo pasabidearen ordezeko bat egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du dagokion proiektua gauzatzeko behar den diru-zuzkidura ezar dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko formularik egokiena bila dezan, funts putreen eta paradisu fiskaletan jarduten duten enpresen presentzia mugatzeko zahar-etxeen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzen kudeaketan.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko formularik egokiena bila dezan, funts putreen eta paradisu fiskaletan jarduten duten enpresen

presentzia mugatzeko zahar-etxeen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzen kudeaketan, eta 2020ko abuztuaren 21eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/MOC-00077).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen zerrenda, Nafarroako lurralde-eremuan kokatutakoena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko martxoaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen zerrenda, Nafarroako lurralde-eremuan kokatutakoena”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Espainiako Gobernuari eska diezaion Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen zerrenda, Nafarroako lurralde-eremuan kokatutakoena.

2. Inbentario bat egin dezan, sei hilabeteko epean, Eliza Katolikoak bere izendapen ezberdinetakoren baten pean eta Hipoteka Legeko 206. artikulua ezartzen duenaren babesean erregis-

tratu dituen Nafarroan kokaturiko ondasun guztiena. Inbentario hori Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da, pertsona fisiko nahiz juridikoek kontsultarako eskuragarri izan dezaten, halako moldez non doako sarbide askea emanen baitu ondasun eta higieziinei buruz jabetza-erregistro ezberdinengandik jasotako ohar soiletara.

3. Iker dezan ea immatrikulatutako ondasunen zerrendan ba ote dagoen toki-entitateen herri-ondasunik; eta, hala baldin bada, erabaki beharreko egintza administratibo edo judizialak erabaki ditzan, ondasun horiek berreskuratzeke.

4. Bulego bat sor dezan, Nafarroan Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunek jabetza-erregistroan dituzten inskripzioen zerrendei eta orriei buruzko kontsultetarako eta aholkularitzarako”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da egin beharreko lege aldaketak egin ditzan, Sekretu ofizialei buruzko apirilaren 5eko 9/1968 Legean nazioarteko parametroak –gardentasuna, proportzionaltasuna eta premia– bete daitezen.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko martxoaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da egin beharreko lege aldaketak egin ditzan, Sekretu ofizialei buruzko apirilaren 5eko 9/1968 Legean nazioarteko parametroak –gardentasuna, proportzionaltasuna eta premia– bete daitezen”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egin beharreko lege aldaketak egin ditzan, Sekretu ofizialei buruzko apirilaren 5eko 9/1968 Legean estatu demokratiko bati eskatzekoak zaizkion nazioarteko parametroak –gardentasuna, proportzionaltasuna eta premia– nahiz informazioa jasotzeko eskubidea –gizartearen oinarritzko eskubidea baita– bete daitezen, Estatuak izandako jokabideei dagokienez”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egiteko agin diezaion Errealitate Sozialaren Behatokiari, Nafarroan bizi diren adinekoen beharrianak eta eskariak ezagutzeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko martxoaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egiteko agin diezaion Errealitate Sozialaren Behatokiari, Nafarroan bizi diren adinekoen beharrianak eta eskariak ezagutzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Azterlan bat egiteko agin diezaion Errealitate Sozialaren Behatokiari, Nafarroan bizi diren adinekoen beharrianak eta eskariak ezagutzeko.

– Adinekoen Kontseiluari protagonismo handiagoa eman diezaion eta parte hartzeko mekanismo gehiago ezar ditzan, adindunek beren eskariak helaraztea eta protagonista aktiboak izatea ahalbidetze aldera

– Plan bat presta dezan, etxez etxeko laguntza zerbitzua indartzeko, prebentzio eta zahartze aktiborako programak zabaltzeko eta zerbitzu publiko berriak sortzeko, hala nola familiako etxeak eta etxebizitza babestuenak, arreta integralagoa eskainiko dutenak eta egungo zerbitzuak hobetzera joko dutenak”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onetsi beharreko arau-xedapenak onets ditzan, ekidite aldera Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak mugatu dezan Nafarroako Foru Komunitateak zerga-arloan daukan eskumen osoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko martxoaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onetsi beharreko arau-xedapenak onets ditzan, ekidite aldera Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak mugatu dezan Nafarroako Foru Komunitateak zerga-arloan daukan eskumen osoa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du onetsi beharreko arau-xedapenak onets ditzan, ekidite aldera Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko 11/2020 Legeak mugatu dezan Nafarroako Foru Komunitateak zerga-arloan daukan eskumen historiko osoa”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko haurren eskolatzeak familientzat duen kostua.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko martxoaren 18an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko haurren eskolatzeak familientzat duen kostua.

Mozioa Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko martxoaren 16ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, Arraza Bereizkeriaren Ezabaketari buruzko Nazioarteko Egunaren kariatara.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Arraza Bereizkeriaren Ezabaketari buruzko Nazioarteko Egunaren kariatara, zeina pasa den martxoaren 21ean ospatu baitzen, Nafarroako Parlamentuak adierazten du gure lurraldean gerta daitekeen arrazakeria eta xenofobia adierazpen oro, partikularra, publikoa nahiz instituzionala, arbuiazen duela eta, halaber, konpromiso sendoa duela gizarteko estamentu guztietatik jatorri, kultura edo etnia arrazoiengatik bazterkeria oro desagerrarazteko.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak egun hori aldarrikatu zuen 1960ko egun horretan Sharpevillen (Hegoafrika) izandako 69 pertsonaren eraiketa gogoratzeko, polizia tiroka hasi zenean apartheid salatzeko modu baketsuan protestan ari ziren pertsonen aurka.

Gaur egun, zorionez, ez dugu halako egoerarik bizi gure inguruan, baina, hala ere, kezkaz entzuten ditugu zenbait adierazpen gorrotozko eta aporofobiko, azkenean aurreiritzi arrazista eta xenofoboek hedapena ekartzen dutenak.

Edonola ere, Nafarroa diskurtso horiek aurkakoa da nagusiki, bai eta pertsonak beren jatorria, kultura edo etniagatik diskriminatzearen aurkakoa ere.

Nafarroako Parlamentuak sinesten du hezkuntzak eta informazioak sentsibilizaziorako eta bizikidetzarako tresna gisa duten ahalmenean. Sinesten dugu besteak ezagutzea dela elkarrekin bizitzeko oinarria. Tolerantziaren printzipio etiko unibertsalean oinarritutako bizikidetzara aldeztu

dugu, eta hori gauzatzen da errespetuan, onespean eta gure munduko aniztasunaren preztzean. Tolerantzia da lehenetsua ematea pertsonaren balioari, bere duintasunari eta bere eskubideei, bai eta aintzat hartzea pertsonaren irizkiak, sinesmenak edo kultura, haiek konpartitu gabe ere. Sinesten dugu sentsibilizatzeko eta informatzeko beharreak, gizarte inklusibo eta konprometituago bat lortzeko beste pandemia bat diren arrazakeria eta xenofobiaren aurka.

Nafarroako Parlamentuak giza eskubideak aldeztu ditu ororen gainetik. Eta giza eskubideen adierazpen bat da kulturen arteko bizikidetzara, gure herritarren aniztasuna errespetatu eta balioan jartzen duena. Duela urtebete esaten genuen moduan, Nafarroa askotariko, anitz eta tolerante bat, hala izateaz harro dagoena, aldeztu dugu. Nafarroa inklusibo batean sinesten dugu, non pertsona guztiek, beren jatorria edo azalaren kolorea edozein dela ere, Nafarroa hobeago baten alde lan egiten duten. Munduari irekita dagoen Nafarroa bat, non denok berdinak garen eta komunitatean bizitzeko proiektu baten ezinbesteko osagai garen: izan ere, ezin liteke bestela izan, bizi garen mundu globalizatuan.

Konpromiso hori ez da urteko egun bakarrera mugatzen; aldiz, urteko 365 egunetarako konpromisoa da. Eguneroko arrazakeria eta xenofobia arazoen konponbidearen zati izan nahi dugu, arazo horien adierazpide ororen aurka, eta, halaber, harrera eta bizikidetzarako lurraldea izan den Nafarroa eraiki nahi dugu”. (10-21/DEC-00017).

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Príncipe de Viana aldizkariari buruzkoa.***RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Príncipe de Viana aldizkariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 14. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zein da Príncipe de Viana aldizkaria argitaratzeko atzerapenaren arrazoia?

Iruñean, 2021eko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

---

**Galdera, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategien energia-efizientziako jarduketak, zeinak 149/2021 Errege-dekretuan jasotzen baitira, egiteko programatik heldu diren laguntza zuzenen deialdiari buruzkoa.***ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategien energia-efizientziako jarduketak, zeinak 149/2021 Errege-dekretuan jasotzen baitira, egiteko programatik heldu diren laguntza zuzenen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

2021eko martxoaren 10eko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara eman zen martxoaren 9ko 149/2021 Errege Dekretua, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien energia-efizientziako jarduketak egiteko laguntzen programa arautu eta autonomia-erkidegoei programa horren laguntzak zuzenean ematea erabakitzen duena.

Errege dekretuaren III. eranskinean "Aurrekontuaren banaketa" ezartzen da, autonomia-erkidegoen arabera; Nafarroari, guztira, 569.761,3 euro dagozkio, alegia, programan guztira diren 30 milioi euroetatik % 1,90.

Era berean, aipatu errege dekretuaren 9. artikulua aurreikusten du III. taulan ezarritako aurrekontuaren ehuneko 5,59 gehienez ere, diruz lagundutako jarduketei egozten ahal zaizkien zeharkako kostu gisa, autonomia-erkidegoek laguntzen zuzeneko onuradun diren heinean aipatu jarduketei egotzi ahalko dizkietenak; zeharkako kostuetan sar daitezke ere, kudeaketa gastu gisa, "langile berriak kontratatzeak".

Errege dekretuaren 16. artikuluan ezartzen denez "laguntzaren xede diren jarduketak hautatuko dira aurkeztutako eskaeren hurrenkera zorroztari jarraikiz, funtsak agortu arte, eta ebatziko dira autonomia-erkidego bakoitzak laguntzen deialdietan zehazten duen moduan".

Errege dekretuaren 14. artikulua xedatzen du laguntzen gehieneko kopurua, bai "Ureztaketa-ins-

talazioen energia-efizientzia hobetzea" 1. jarduketarako, bai "Energia-efizientzia hobetzea eta energia berriztagarriak nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan" 2. jarduketarako ere, iritsiko dela, gehienez ere, kostu hautagarriaren % 30era. Artikulu bereko 3. atalean aurkezten denez "Autonomia-erkidegoek beren deialdietan ezarri ahalko dute gehieneko eta gutxieneko kostu hautagarri bat eskaera bakoitzeko, eta gehieneko aurrekontu bat 13. artikuluko 1. ataleko jarduketa bakoitzerako. Halaber, laguntzen zenbatekoa ezarri ahalko dute jarduketa eta onuradun bakoitzerako, betiere artikuluko honetako 1. atalean ezarritako gehienekoa gainditu gabe".

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

1.- Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak onestea zuzeneko dirulaguntzen deialdia, Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien energia-efizientziako jarduketak, zeinak 149/2021 Errege-dekretuan jasotzen baitira, egiteko programatik heldu direnena?

2.- Zein departamentu arduratuko da dirulaguntzen deialdia arautzeaz eta onestiaz eta zein izanen da laguntzak emateko prozedura ebazteko organo eskuduna?

3.- Zein da Nafarroako Gobernuak aurreikusten duen gehieneko eta gutxieneko kostu hautagarria, errege dekretuan aurreikusten den jarduketa bakoitzeko?

4.- Zein da Nafarroako Gobernuak ezarri gogo duen laguntzen zenbatekoa, jarduketa eta onuradun bakoitzeko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, irakasleek maskarak erabili behar izateari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, irakasleek maskarak erabili behar izateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Hezkuntza Departamentuak erabaki du irakasleek erabiltzen duten maskara-mota aldatu beharra dagoela, halako moduan non, orain, Haur Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko irakasle guztiek erabili beharko baitituzte FPP2 maskarak, eta gainontzeko irakasleek, berriz, IIR maskara kirurgikoak. Zergatik?

2. Horrek esan nahi al du entzumen-desgaitasuna edo bestelako desgaitasunen bat duten ikasleak dauzkaten irakasleek ezin izanen dutela erabili maskara erdi-garden eskuragarri?

3. Hezkuntza Departamentuak zer konponbide darabil gogoan ikasle horiek beren irakasleekin komunikatzeko zailtasun are handiagoak izatea ekiditeko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentzia.**

### *BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen "Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentziaren barne-funtzionamendurako arauak", zeinak ponentziak berak onetsi baitzituen 2021eko martxoaren 23an eginiko bilkuran. Hona testua:

**"Lehena.-** Sorturiko ponentziaren xedea da Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzea.

**Bigarrena.-** Hona ponentzia osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

- Marta Álvarez Alonso andrea (Navarra Suma).  
Ordezkoa: Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jauna.
- María Virginia Magdaleno Alegría andrea (Nafarroako Alderdi Sozialista).  
Ordezkoa: María Aranzazu Biurrun Urpegui andrea.
- Blanca Isabel Regúlez Álvarez andrea (Geroa Bai).  
Ordezkoa: Isabel Aramburu Bergua andrea
- Adolfo Araiz Flamarique jauna (EH Bildu Nafarroa).  
Ordezkoa: Maiorga Ramírez Erro jauna.
- Ainhoa Aznárez Igarza andrea (Podemos Ahal Dugu Nafarroa).  
Ordezkoa: Mikel Buil García jauna.

– María Luisa De Simón Caballero andrea (Izquierda-Ezkerrako talde parlamentario mistoa).

**Hirugarrena.-** Ponentziak Unai Hualde Iglesias jauna hautatu du lehendakari. Ponentziako idazkari-lanetan jardunen da legelari nagusia, edo haren ordezkoa.

**Laugarrena.-** Ponentziak boto ponderatuaren sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horrela, ponentziako eledun-kide bakoitzaren talde parlamentarioak edo foru parlamentarien elkarteak zenbat foru parlamentari dituen, horrenbeste boto edukiko ditu eledun-kide horrek ponentzian.

**Bosgarrena.-** Ponentziak lanerako plana ezarriko du, non bere lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen gaiak aztertuko dituen.

**Seigarrena.-** Ponentziak agindu zaion lana bukatu arte egingen du lan, eta lan hori ponentzia eratu eta 6 hilabeteko epean bukatu beharko du. Epe hori luzatzen ahalko da.

**Zazpigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea".

Iruñean, 2021eko martxoaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---



## **Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru jurista hautatzea.**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, hona erabakia:

**1.** Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru

jurista aukeratzeko hautagaitzak aurkezteko epea 2021eko apirilaren 15eko 17:30eak arte luzatzea (10-21/ELC-00001).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**2/2021 Foru Lege-dekretua, otsailaren 24koa. Honen bidez, egiten da Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauaren transposizioa (Zuzentarau horrek aldatzen du 2016/1164 (EB) Zuzentaraua, hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoiei dagokienez), eta aldatzen dira, alde batetik, kirol-lehia ofizial eta profesionaletan parte hartzen ez duten kirol klubei onartutako geroratzek, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren hogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren babespean onartutakoak, eta, bestetik, abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea, jokoari buruzkoa.**

*OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko martxoaren 18an egindako bileran, baliozkotu zuen 2/2021 Foru Lege-dekretua, otsailaren 24koa, zeinaren bidez egiten baita Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauaren transposizioa (Zuzentarau horrek aldatzen du 2016/1164 (EB) Zuzentaraua, hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoiei dagokienez), eta aldatzen baitira, alde batetik, kirol-lehia ofizial eta profesionaletan parte hartzen ez duten kirol klubei onartutako geroratzek, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren hogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren babespean onartuta-

koak, eta, bestetik, abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea, jokoari buruzkoa. Foru Lege-dekretua 2021eko otsailaren 27ko 46. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2021eko martxoaren 2ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



